

ZURE ISLAPENA

Bazen behin ispilu obalatu bat. Obalo forma zuen besteen bezala, baina bakoitzak bestearekiko desberdina zen; eta ere gauzak islatzen zituen besteen bezala. Ez zuen lagun asko, baina ezta gutxi, baizik eta lagun onak zituen. Bere gurasoak ere asko maite zituen, pertsona nagusi bat bezala tratatzen zioten erabakiak hartzerakoan. Eta gainera, oso herri polit batean bizi zen, non denak bata besteari ezagutu eta arazo bat bazegoen zaindu egiten zutena.

Txikia zenean, berari gustatzen zitzaion gauzak islatzen zituen, adibidez: jostailuak, jolasak, bere lagunak, bere gurasoak, etab. Askok gustatzen zitzaion bere erreflexua ikustea, eta besteei erakustea; oso harro zegoen bere islapenena, eta oso pozik, berak nahi zuena islatu ahal zuelako eta oso dibertigarria zelako. Pixka bat hasi eta gero, modan zeuden gauza batzuk gehiago islatzen hasi ziren beste ispiluetan, baina berak besterik berari gustatzen zitzaion modak islatzen zituen eta kito.

Pixka bat gehiago hasi eta gero, zeuden modako gauzak gehiago islatzen hasi zen, baina normala zen, besteek ere berdina egiten zuten, hau da, modan zegoena islatzen zuten, horrela ez izateko besteekiko desberdina.

Geroxeago, moda berri bat agertu zen "egokitu" izenekoa, non oso ezaguna eta famatua egin zena. Moda honek ezartzen zituen arauak ziren: kolore neutroak, famatu espezifiko batzuk, arropa ilun batzuk, ekintza espezifiko batzuk, eta abar islatzea bakarrik. Ez zituen gauza hauek oso gustuko gure ispiluak, baina hauek berdin zuten, ez zirelako moda berri hau famatua egin zutena, baizik eta egin behar den aldaketa fisiko bat: karratu itxurakoa bihurtzea. Hasieran, erokeria bat iruditu zitzaion. "Nire itxura aldatzea betiko moda berri baten gaitik? Bai zera!". Baina gero eta gehiago hasi zen hau egitearen buruz pentsatzen, eta azkenean erabaki batera iritsi zen; karratu itxurako ispilu bat bihurtuko zen. Erabaki hau ez zuen hartu karratu itxura gustatzen zitzaiolako, baizik eta itxura honetako ispiluak bihurtu ziren bezala egokitu nahi zuelako besteekin.

Aldaketa hau egiteko leku bereziak zeuden, baina bere herrian ez zegoen horrelako lekurik, enorrek ez zelako forma horretara aldatu, batzuk laster egin behar zutela esan harren. Gero ere, beste leku batera joan beharraz bereiz, beste arazo bat zegoen, non handiagoa zen: bere gurasoak. Ez zen ez zutelako dirua emango aldaketa hau pixka bat garestiago zelako, baizik eta ez ziotelako utziko karratu itxurara aldatzen; beti esan zioten eta forma obalatu berezi eta oso polita zuela. Egon ahal zen ezezkoan harren, bere gurasoei bere ideia berri hau azaltzera joan zen, beti entzun izan zuten eta bere pentsaerak. Lasai eta argi esplikatu izan harren, bere gurasoek ez zioten utzi, erokeria bat zela esan zioten. Ispilutsuari mingarria egin zitzaion bere gurasoen erantzunak. "Zela esan dezakete horren hitz itsusiak? Ez dute ezer ulertzen." Pentsatu zuen. Azkenean erabaki batera iritzi zen. Ihes egingo zuen aldaketa egiteko.

Dena hilabete bat baino lehenago hasi zen planifikatzen. Larunbat batean egin zuen ekintza, izan ere, bere lagun baten etxean egongo zela egun osoa, eta gero berandu iritsiko zela

etxera esango zuen gurasoei. Goizean goiz autobus geltokira joango zen, daukan hiririk hurbilenara doan lehen autobusa hartzeko. Autobusetik atera eta gero, hiri zentrora joango zen dagoen aldaketa lokal gertuenera iristeko. Hor, txanda hartuta izango zuen ez asko itxaroteko. Aldaketa eginda eta bere forma berriarekin, autobus geltokira joango zen autobusa hartu eta etxera bueltatzeko. Dena milimetralki aztertu zuen. Ekintza hau guztiak egiteko dirua beretik aterako zuen: bere gordetako paga guztiak hartu, eta gero ere, lan txiki bat aurkitu zuen, falta zitzaion diru guztia lortzeko.

Iritsi zenean astea, bere gurasoei galdetu zion bere lagunaren etxera joan ahal zen. Bere gurasoek baietz esan zuten lehengoan, izan ere, oso harro zeuden berea ikusita, bere, lehen lana zuelako. Eta hori guztia, kontuan izanda ispilutxoak inondik inora ere ez deitzeko esan ziela esanda, lan batean egongo zirela egun osoan azaldu eta gero. Berez, bere lagunari kontatu zionean bere plana, forma perfektua zuela eta erokeria bat zela bere plana esan zion, orduan ikusi zuen ezingo zula bere laguntza erabili.

Larunbata, berak planeatu bezala hasi zen: goiz esnatu zen, bere gurasoei agur esan eta autobus geltokian zegoen eguneko hirira zoan lehen autobusa hartzeko. Autobusean sartzerakoan, amonaxo oso atsegin bat eseri zen bere ondoan. Pixka bat denarena hitz egin zuten elkarrekin, memento batean amonak oso itxura polita zuela esan zuen arte. Gure ispiluak galdetu zion ea gustatzen zitzaion moda berria non karratu itxurakoa bihurtzen zinen. Amonak hau entzutean esan zuen "Noski ezetz, polita izan ahal da hasieran, baina oso monotonoa da. Forma berdina pertsona guztiek? Ze aspergarria! Gainera, gure itxura aldatzen badugu, gure izaera aldatzen gaude, eta gainera txarrera!". Azken hitz hau esan eta gero autobusa gelditu egin zen, iritsi baitziren. Amonatxoari agurtu eta korrika joan zen lokalera, pentsu zuen baino beranduago iritsi baizen hirira.

Zentrora iritsi zenean, galduta zegoela konturatu zen, eta jendeari galdezka hasi zuen. Ez zen denbora gutxi pasa esan arte non zegoen lokala. Bidea jada jakinda, berriro hasi zen korrika. Harritu egin zion kaleetan zeuden ispilu desberdin guztiak; denak antzeko obalatu forma zuten, baina desberdinak enorrek ez zuelako berdina islatzen.

Lokal haurrera iritsi zenean, arnasa hartzeko gelditu zen ate aurrean. Arnasa hartu eta gero, sartzera zihoazenean, ateko bere erreflexua (kristalezkoa zen atea) ikusten gelditu zen. Ez zela zatarra iruditu zitzaion, eta bere burura etorri zitzaion zelako arro sentitzen zen bere itsuraz eta erreflexuaz txikitan. Pentsatzean bukatu eta ondoren, bere buruari galdetu zion "Zeretan ari zara, zure burua aldatzen?". Egiten ari zenaz pixka bat pentsatu eta ondoren, buelta eman eta korrika hasi zen autobus geltokira. Etxera bueltatzeko lehen autobusa hartu zuen, eta hau bere herrira iristean, salto batez atera eta berriz korrika hasi zen etxera iritsi arte. Etxera iristean, atea zabaldu eta bere gurasoen ondora joan zen zuzenean, negarrez hasi eta egin eta pentsatu zuen guztia kontatu zion hauei.

Arratsalde horretan, berez atera behar zen bezala atera zen kalera bere lagunekin. Baina oraingoan, aspaldiko partez, berari gustatzen zitzaion gauza bat islatu zuen memento oro, eta agertzen zen gauza hori bere burua zen; bere beldur, urduritasun, poztasun eta guztiarekin. Argi gelditzeko mundu osoari zein zen bera.

Kostatu zitzaion gure ispiluari ausardia izatea berari gustatzen zitzaion gauzak islatzeko, baina poliki-poliki, konfiantza gehiago hasi zen izaten bere buruarekiko, eta pozikago bizi zen, denbora osoan bera zen bezala izan ahal zuelako, beste pertsona baten gustuak islatu

beharra ez izatean.